



ARABA EUSKARAZ 2024 TONBOLA ETA MATERIALA

HUSTU GANBARAK ETA ARMAIRUAK

Ekainaren 16n, Araba Euskaraz, Arabako Ikastolen jaia, ospatuko dugu Olarizun Oiongo San Bizente Ikastolaren eskutik. Antolaketa Arabako 8 ikastolen artean burutuko dugu eta Laudio Ikastolari, Amurrioko Aresketa Ikastolarekin lankidetzan, tonbola antolatzea egokitu zaio.



MATERIAL BILKETA

Horretarako, Ikastolako komunitate osoaren laguntza ezinbestekoa izango dugu eta hori dela eta, parte hartzeko deialdia luzatzen dizuegu: ekarri Ikastolako sarrerara urtarrilaren 12ra arte etxean erabiltzen ez duzuen baina oraindik erabilgarri diren liburu, opari, mo-zorro, jolas, jostailu zein bestelako tresna eta tramankuluak.

MATERIAL SALMENTA

Online eta ikastolan ikusgai eta salgai dago 2024ko Araba Euskarazeko materiala. Datorren igandean, abenduaren 24an, Laudioko Aldai Plazan egongo den Gabonetako azokan ere salgai egongo da.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA HELARAZTEKO IKAZKINAREN JAIA

ABENDUAREN 16AN, LARUNBATEAN, 11:00ETAN

*Laudio Ikastolako Kriskitin euskara taldeak Olentzeroren laguntzailerari eskutitza emateko jaia antolatu du **abenduaren 16rako**, larunbata.*

***Haur Hezkuntzako jolastokian** elkartuko gara danok **11:00etan**, familian eta jai giroan ikazkinarekin goiz pasa egiteko.*

Umeez lasaitasunez ikazkinari kontuak esan eta eskutitzak irakurtzen dituzten bitartean txokolate beroa jateko aukera izango dugu.

